



GURASO BILERA

DBH 1

2023/2024 ikasturtea

AURKIBIDEA

- 1) AURKEZPENA
- 2) IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
- 3) TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
- 4) TUTORETZA
- 5) ORIENTAZIOA
- 6) IRTEERA PROFILA
- 7) METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA
- 8) ELKARBIZITZA
- 9) EGUNEROKO ARAUAK
- 10) IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
- 11) GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN
- 12) GELAKO GURASO ORDEZKARIAK
- 13) EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA
- 14) OSASUN ARRETA
- 15) ERANSKINAK

1. AURKEZPENA

Zuen alaba/semear Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen urratsak ematera doa. Esan gabe doa, Lehen Hezkuntza amaituta aldaketa sumatuko duela egunerokoa: ikasgai desberdinak, irakasle taldea, ordutegia, e.a.

Hala ere, aldaketa hauek ahalik eta modu xamurrenean bizi daitezten eta tutoreak ikaslearekiko gertutasuna mantentuz, DBH1eko gela bakoitzean bi tutore izango dira.

Ikasle bakoitzak bere erreferentziako tutorea izango du baina bere gelako bigarren tutorea ere izango du.

2. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturteko helburu, metodologia eta eguneroko dinamikaz arituko gara.

Bakarkako bi elkarrizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Bilera horietaz gain, behar adina aldiz elkartzeko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den ATARIA astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertuko dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio horri guztiari webgunea gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

ATARIA jasotzen ez baduzue, Alexiarekin gorabeheraren bat egon daiteke eta alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera idatzi beharko zenukete. **Zuen datu**

personaletan aldaketarik izanez gero, idatzi ezazue idazkaritzara:
idazkaritza@zurriolaikastola.eus.

DBH-REN CURRICULUMAREN ARLOAK ETA IRAKASLEAK

Lehen mailan curriculumeko arloak eta irakasleak honakoak dira:

	1A (30)	1B (30)	1C (29)
Tutorea	Loinaz Garaialde + Josebe Muguruza	Amaia Elorza + Beñat Arana	Usoa Arin + Larraitz Mendia
Euskara	Loinaz Garaialde	Amaia Elorza	
Gaztelania	Amaia Elorza		
Ingelesa	Larraitz Mendia		
Matematika	Josebe Muguruza		
Natur Zientziak + Ikaskuntza Zerbitzua Komunitatean	Usoa Arin	Beñat Arana	Usoa Arin
Gizarte Zientziak	Oihane Arregi		
Heziketa Fisikoa	Lorea Etxeberria		
Musika	Amaia Sarasua		
Plastika	Estitxu Zubeldia		Haritz Irureta
Balio etikoak	Josebe Muguruza	Estitxu Zubeldia	Eneko Apalategi
Frantsesa	Mauriñe Eizmendi	Maddalen Acero	Mauriñe Eizmendi

DBH-1Ako tutoreak

Loinaz Garaialde: lgaraialde@zurriolaikastola.eus

Josebe Muguruza: jmuguruza@zurriolaikastola.eus

DBH-1Bko tutoreak

Amaia Elorza: aelorza@zurriolaikastola.eus

Beñat Arana: barana@zurriolaikastola.eus

DBH-1Cko tutoreak

Usoa Arin: uarin@zurriolaikastola.eus

Larraitz Mendia: lmendia@zurriolaikastola.eus

Gainerako irakasleen helbideak Ikastolako webgunean dituzue ikusgai.

3. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

LHtik DBHrako jauzi honetan zuen seme-alabek nabaritu duten beste aldaketetako bat taldekatze berriak izan dira. Aurreko etapako taldekatzeak desegin, eta berriak sortu ditugu hainbat irizpide jarraituz, eta ikasle berriak ere hartu ditugu.

Taldekatze horiek DBHko lehen zikloan mantenduko dira, eta DBH 3n taldekatze berriak egingo dira.

DBH 2tik aurrera, aukerako ikasgaiak izango dituzte, eta ikasgai jakin horietan taldekatzeak ikasleen aukeraketaren arabera izango dira.

Hauek izango dira DBH 1 en aurten ditugun hiru taldeen ordutegiak:

DBH 1A

23/24 IKASTURTEA

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Matematika	Gizarte	Musika / Plastika	Natur Zientziak	Gizarte	8:00-8:55
8:55-9:50					Ingelesa	8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Frantsesa	Euskara	Matematika	Gaztelania	Natur Zientziak	10:010-11:00
11:00-11:50	Euskara	Frantsesa		Tutoretza		11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Balio Etikoak	Ingelesa	Gaztelania	Heziketa Fisikoa	Euskara	13:10-14:05
14:05-15:00						14:05-15:00

DBH 1B

23/24 IKASTURTEA

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Euskara	Gaztelania	Euskara	Musika / Plastika	Matematika	8:00-8:55
8:55-9:50						8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Balio Etikoak	Gizarte	Natur Zientziak	Frantsesa	Ingelesa	10:010-11:00
11:00-11:50				Tutoretza	Gaztelania	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Ingelesa	Heziketa Fisikoa	Gizarte	Matematika	Natur Zientziak	13:10-14:05
14:05-15:00			Frantsesa			14:05-15:00

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Musika / Plastika	Ingelesa	Natur Zientziak	Heziketa Fisikoa	Euskara	8:00-8:55
8:55-9:50						8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Gaztelania	Euskara	Gizarte	Frantsesa	Matematika	10:010-11:00
11:00-11:50		Gaztelania	Euskara	Tutoretza		11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Natur Zientziak	Matematika	Ingelesa	Gizarte	Balio Etikoak	13:10-14:05
14:05-15:00			Frantsesa			14:05-15:00

4. TUTORETZA

Astean ordu betez izango da tutoretza saioa. Saio hauetan tutoreak hartuko du parte eta ikasleen zein taldearen jarraipena egiteko baliatzen da besteak beste. Ikasleentzat egunerokoan sortutako kezka, proposamen e.a. helarazteko espazioa da.

Tutoretza hauek ondorengo edukiak lantzeko baliatuko dira DBH1n.

- DBHn kokatzea: aurkezpena, elkar ezagutzea, talde kohesioa, DBHko antolaketa eta elkarbizitza arauak...
- Norbera: nork bere burua ezagutu, norberaren estimua eta autoerregulazioa landu, nork bere burua nola zaindu (garapen afektibo-sexuala).
- Alkohola eta tabakoarekiko menpekotasunen prebentzioa.
- Sare sozialen erabilera.
- Elkarrekin bizitzen: aniztasuna, elkarrenganako errespetua, enpatia, asertibitatea, parekidetasuna eta lankidetzeta.
- Ikaskuntza prozesuaren jarraipena eta orientazioa: ikas-teknikak, ikasteko ohiturak eta antolaketa pertsonala.
- Eskola emaitzen jarraipena eta balorazioa.

- Partaidetza ikastolan: ikasleak DBHko Batzordeetan eta ikastolako jarduera orokorren antolaketa eta parte hartzea.

5. ORIENTAZIOA

Beste ikasturteetan bezalaxe, gurasoek dituzuen kontsultak egiteko, aholkularitza zerbitzua erabil dezakezuela gogorarazten dizuegu. Horretarako Hurrako orientatzailearekin harremanetan jar zaitezke te tutorearen bitartekaritza erabiliz, ikastolara deituz edo posta elektronikoko bidez.

orientatzailea@zurriolaikastola.eus

6. IRTEERA PROFILA

Ikasle batek Zurriola Ikastolan egin dezakeen ibilbidean, maila eta etapa ezberdinak zeharkatuko ditu. Ibilbide guzti horretan bere garapen integrala lortzea da gure helburua. Horretarako **Zurriolako Ikaslearen Irteera Profila** definitu genuen Ikastolako guraso eta irakasleen artean. Ikastolako hautu pedagogikoa eta jarduna Zurriola Ikastolako Ikasle orok garatu beharreko ezaugarri horietara bideratuta dago.

Hauek dira Zurriolako Ikaslearen Irteera Profilaren ezaugarriak (ZIIP):

- EUSKALDUN EUSKALTZALEA
- KOMUNIKATZAILE ELEANITZA
- BIZIKIDETZAREN SUSTATZAILEA
- INGURUMENAREKIKO ERRESPETUAREKIN KONPROMETITUA
- OSASUN OREKA BILATZEN DUENA
- JAKIN-MINA DUENA
- AUTONOMOA
- KOOPERATIBOA
- KRITIKOA
- EKINTZAILEA
- SORTZAILEA
- BALIABIDE TEKNOLOGIKO ETA DIGITALEN ERABILTZAILE ERAGINKOR ETA ARDURATSUA

7. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA

DBHko maila guztietan hiru ebaluazio-txosten jasoko dituzue ikasturtean zehar. Ebaluazio bakoitzean tutoreak gutxienez bi aldiz izango du ikasleen bilakaeraren berri beste arloetako irakasleengandik.

Ebaluazio jarraituaren notifikaziorako tresna Alexia izango da, eta adierazitako datetan izango dituzue ikusgai txostenak.

1. EBALUAZIOA	Abenduaren 5ean
2. EBALUAZIOA	Martxoaren 8an
3. EBALUAZIOA	Ekainaren 7an
OHIKO DEIALDIA	Ekainaren 21ean

1.- EKI PROIEKTUA

2013/14 ikasturtean Zurriola Ikastola, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko ikastola gehienekin batera, **EKI proiektuan** murgildu zen DBHn. Proiektu honen xedea kompetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren diseinua eta aplikazioa da, beti ere euskal kurrikuluma aintzat hartuta.

Helburua ikasleak ezagutzak eskuratzea eta ezagutza horiek egoera baten aurrean **integratzea eta transferitzea** da. Hau da, ikasleak eskuratuko dituen edukiak eguneroko bizitzan izango dituen hainbat egoeratan, modu eraginkorrean erabiltzea eta aplikatzea.

Batetik, funtsezko kompetentziak landu eta ebaluatuko dira, eta, bestetik, kompetentzia espezifikoak (arloekin loturik daudenak).

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak dira.

Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituzte, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko ere.

8 dira Funtsezko Konpetentziak:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
2. Konpetentzia eleaniztuna
3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniariarako konpetentzia
4. Konpetentzia digitala
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
6. Herritartasunerako konpetentzia
7. Ekintzailera-konpetentzia
8. Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Ikasleek arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarriko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak dira, funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak.

EKIk bere ibilbidea egin du eta urte batzuetan liburuak erabili baditugu ere, DBHko maila guztietan EKI DIGITALERA egin dugu saltoa arlo batzuetan. Ondorioz hainbat gai modu digitalean landuko ditugu DBHko maila guztietan.

2.- EBALUAZIOA

EBALUATZEKO ESKALA

Ikaslearen ikas prozesua ebaluatzeko **1-4 eskala** erabiliko dugu. 1-10 eskala baina hezigarriagoa dela iritzita, zifraren beraren garrantzia lausotuz.

- | | |
|--|--------------------------|
| 1. Helburua ez du lortu: | maila XUMEA |
| 2. Helburua lortu du baina justu : | maila OINARRIZKOA |
| 3. Ondo lortu du nahiz akatsen bat eduki: | maila EGOKIA |

4. Oso ondo lortu du:

BULETINA

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ikasleak bere garapenaren berri ematen duen buletin bat jasoko du. Une honetan, buletin-eredua aztertzen ari gara Ikastolen Elkartearekin batera, Eusko Jaurlaritzaren curriculum-dekretu berriak ezarritako aldaketak bertan txertatu ahal izateko.

Lanketa horretan aurrera egin ahala emango dizuegu kalifikatzeko baliatuko ditugun irizpideen berri, bai eta buletinaren berri ere.

BERRESKURATZEAK

Lehen eta bigarren hiruhilekoen amaieran oinarrizko maila eskuratu ez den arloetan, berreskuratzeko beste aukera bat izango dute ikasleek, ondorengo datetan eta arratsalde:

1. berreskuraketa probak	Abenduaren 12tik 14ra
Emaitzen jakinarazpena	Abenduaren 20a
2. berreskuraketa probak	Martxoaren 12tik 14ra
Emaitzen jakinarazpena	Martxoaren 21a

OHIKO DEIALDIKO PROBAK

Ikasturtearen amaieran, oinarrizko maila lortu ez duten helburuak berreskuratzeko azken aukera izango dute, ekainaren 14, 17 eta 18an. Hau kontuan har ezazue oporraldiak antolatzeke garaian.

KURTSOZ IGAROTZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleak ikasturte batetik bestera igaroko dira ikasgai guztiak gainditzean, edo ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaitan dutenean. Ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean.

Salbuespen gisa, hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo ikasturtera igaroko da irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztopo ez badira hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko.

Gainditu gabeko arloren batekin mailaz igarotzen bada, ondorengo ikasturtean aukera izango du berriro ere gai horiek berreskuratzeke.

JARDUERA EBALUAGARRIEN BERRIKUSKETA EGITEKO PROZEDURA

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein idatzizko jarduera ebaluagarri zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko. Derrigorrezko hezkuntza etapetako ikasleen gurasoek edo ordezkari legalek gainera, idatzizko jarduera ebaluagarrien kopiak etxera eramateko eskaera egin dezakete, behean zehaztutako prozedurari jarraituz.

- Eskaera idatziz egingo dute jarduera ebaluagarria zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko, eta jarduera ebaluagarri bakoitzarentzat eskaera bat aurkeztu beharko da.

Irakasleak, egoki baderitzo, jarduera ebaluagarriaren kopia eman aurretik hitzordua emango dio guraso edo ordezkari legalari jarduera elkarrekin ikusi eta aztertzeke.

EBALUAZIOAREN INGURUKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA

Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren, ikasleek 2 laneguneko epea izango dute kalifikazio horien aurkako erreklamazioak aurkezteko inplikaturako irakasleari, eta honek 2 laneguneko epean erantzungo dio erreklamazioari.

Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du:

- Ebaluazio partzialak:

Erreklamazioa tutorearen aurrean egingo da, eta tutoreak etapa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Etapa buruak kontsulta egin diezairoke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

- Azken ebaluazioa:

Ohiko deialdiari dagozkion kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari (zuzendaria@zurriolaikastola.eus), kalifikazioa jaso eta 2 laneguneko epean.

8. ELKARBIZITZA

Alor honek berebiziko garrantzia du gure egunerokoa. Ikasleen ikasketa-prozesua behar bezala eman dadin, inguru seguru batetan sentitzea ezinbestekoa da, non errespetuzko jokabideak soilik onartuko diren. Ildo honetan, azken urteetako ekimenei jarraipena emanaz, beste pauso bat eman dugu. Alde batetik, Haur Hezkuntzan EHIko Kuku programa abian dugu, ikasleen emozioak landuta, hauen adierazpena eta kudeaketa hobetzeko asmoz. Bestetik, LH1en hasita eta DBH3. maila bitarte KiVa programa dugu martxan.

Zurriola, Kiva Ikastola

Zurriola KiVa Ikastola da 2021-2022 ikasturtea geroztik. Finlandiako unibertsitateak garatutako programa honek Ikastolako gazte eta nerabeen artean eman daitekeen jazarpena prebenitu, detektatu eta beharrezkoa denean eskua-hartzea du helburu. Funts teoriko sendoak izateaz gain, hainbat ikastoletan egiaztaturiko programaren emaitza positiboak ere aipagarriak dira.

9. DBH-KO EGUNEROKO ARAUAK

Ikasleen arautegia Zurriolako web orrian duzue eskura. Hala ere, egunerokoa duten intzidentziagatik, hementxe aipatzen dizkizuegu zenbait:

- **Puntualitatea:** Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitez hartuko da. Klase tartetan edo jolas garaiaren ondoren gertatzen bada eskola orduz kanpo errekuperatu beharko du galdutako denbora, lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn.

- Ikastolara ekartzen den materiala (sakelekoak, eta bestelako gailu elektronikoak,...) ikaslearen ardurapean dago, hala ere, komenigarria litzateke gisa honetako materiala ikastolara ez ekartzea.
- **Dispositiboak** (Chromebookak) ikastolarenak dira, baina ikasleek ordenagailu bana esleituta izango dute DBHko ibilbidean zehar, eta berena balitz bezala zaindu eta erabiliko dute. Gailu hauek egunero etxera eramateko edota egunero ikastolan uzteko aukera izango dute ikasleek (ikasturte hasieran bidalitako galdetegian dagoeneko egin dute aukeraketa), eta hurrengo egunerako bateria kargaturik izateko konpromisoa hartuko dute. Gailu hauentzat Ikastolak aukeratutako berme-eredua 4 urtekoa denez, DBHko ibilbide osoan egongo da indarrean berme hori. Horrela, dispositibo hauen intzidentziak Ikastolan bertan kudeatuko dira. Gailuarekin arazoren bat izanez gero, Ikastolako IKT Taldeak kudeatuko du arazoa eta konponketa. Berme horrek barne hartzen ez dituen konponketak, gurasoek beren gain hartu beharko dituzte. Ordenagailua lanerako materiala da. Irakasleak esaten duenean irekiko dute ikasleek, eta irakasleak esaten duenean itxi egingo dute. Klase tarteetan ez dute erabiliko. Ordenagailua ez dute lanerako ez den ezertarako erabiliko.
- **Sakelekoa (mugikorra) eta bestelako gailu elektronikoak** ezin dira Ikastolako eremu osoan erabili, ezta eskola-orduetatik kanpo ere. Erabiltzen ari ez dela hots egiten badu, irakasleak gailua jaso eta egunaren amaieran itzuliko dio. Erabiltzen ari baldin bada, bi egunez jasoko du irakasleak. Ezin dira besteen irudiak (ezta audio grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili.
- **Asistentzia-hutsegiteak.** Asistentzia-hutsegitearen justifikazioa eskola-agendan edo mezu elektroniko bidez helaraziko zaio arloko irakasle eta tutoreari. **Ahal den guztietan aurrez egitea eskatzen dizuegu.**
- Eskola orduetan **Ikastolatik ateratzeko** gurasoen baimen idatzia beharko da **aldez aurretik.**

- **Aste-egitaraua.** Lehen Hezkuntzatik erabiltzen duten tresna da, eta etapa honetan honen erabilerak garrantzia berezia du. Gogora ezazue ez dela ikaslearen agenda pertsonala eta kontuan izan bi helburu nagusi dituela:
 - Batetik, ikasleak bere lanak antolatzeko tresna da, eta noizean behin horren jarraipena egitea komeni da.
 - Bestetik, irakasle eta gurasoen arteko komunikazio tresna da: bertan puntualitate gorabeherak, jokabide arazoak, asistentzia-hutsen justifikazioak... elkarri komunikatuko dizkiogu.
- Proba egunetan aurreko saiora/saioetara justifikaziorik gabe huts egiten duenak ezin izango du proba egin.
- Berreskuraketa egunetan probak arratsalde izango dira. Goizeko saioen batera justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezin izango du probarik egin.

Aipatutako arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute Hurrako jangelara deituta edo jangelahurra@zurriolaikastola.eus helbidera idatzita.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.
- DBH1 mailako ikasleek 12:00etan bazkalduko dute.
- Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...), eta Hurrako jangelan lehen aldiz gelditzen bada (DBH 1ekoa delako edo orain arte jangelakoa ez zelako), edo arazoa berria bada, osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

10. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuk helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste Hurrako batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin.

Irteerak eskola-jarduerak dira, eta, horregatik, ikasle guztiak behartuta daude horietan parte hartzera. Ikasleak joan ezin duenean, beste edozein asistentzia-hutsegite bezala justifikatu beharko dute gurasoek, eta jakin bezain laster adieraztea eskertuko genizueke, irteeraren antolaketa oztopa ez dezan. Autobusaren gastua ikasle guztien artean banatuko da. Gainerako gastuei dagokienean, diru-itzulketa egingo zaie joan ez diren ikasleei, posible den neurrian.

Ikasturtean zehar zenbait irteera egingo ditugu, hainbat helbururekin: kohesioa lantzeko, Donostiako txokoak ezagutzeko, kultur-jarduera desberdinak egiteko, jarduera fisikoaz gozatzeko... Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue. Lehena, bi egunekoa, irailaren 25etik 26ra izango da. Gelaka egingo dugu, eta helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea da. Oso garrantzitsua da irteera honetan parte hartzea. Aurten ere, DBH 1eko ikasleek elkartrukea egingo dute Baionako Estitxu Robles Kolegiarekin martxoaren 18 eta 22 arteko astean.

JARDUERA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk Ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, ikastolatik kanpo. Aurten burutuko ditugun ekintzen berri ematen joango gara.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure gizartearen kultur-adierazpen hauek ikasleak ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko. Horien berri data gerturatu ahala emango dizuegu.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 1ean
- San Tomas: abenduaren 20an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 2an
- Inauteriak: otsailaren 9an (mozorro libre)
- Korrika: martxoaren 14tik 24ra bitarte, data zehaztear
- Ikastolaren Eguna: zehazteke

*Ohikoa den moduan, Kaldereroak ea Inauterien artean astebeteko epea soilik dagoenean, bigarren honen konpartsa bertan behera gelditzen da. Ondorioz, 2024. urtean ez ditugu Euskal Inauteriak ospatuko.

Ikasleak danborrada, kaldereroak eta inauteriak ospatzen ditugun egunetan, arratsaldeko ospakizunetara boluntario etorriko dira. Gure aldetik ekintza hauetan parte hartzera animatu nahi ditugu, euskal nortasuna bultzatuko duen beste ekintzetan parte hartzera bultzatuko ditugun bezalaxe.

Boluntarioki parte hartuko dutenen zerrenda aurrez eskatuko da, eta jaialdian parte hartzeko konpromisoa eskatuko zaie, baita prestatzeko egin behar diren jarduerak egiteko ere.

11. GURASOEN PARTAIDETZA IKASTOLAN

Gurasoak Zurriola Ikastola IKE kooperatibako partaide nagusiak izanik, Ikastolaren norabide estrategikoaren ardatza dira, besteak beste, Batzarra, Artezkaritza Kontseilua eta Eskola Kontseiluaren bidez. Aldi berean, gurasoek partaidetza hori areagotzeko aukera dute Olarrizuren bidez. Olarrizu IGE Zurriola Ikastolako ikasleen guraso-elkartea da. Ikastolaren kooperatiba-izaera bultzatu nahian, bazkide guztion partaidetza sustatu nahi du, bi helbururekin: ikastola osatzen dugun kolektibo guztien arteko harremana sendotzea eta, auzolana bultzatuz, gure seme-alabentzat eredu izatea.

Martxan dauden eta sortu daitezkeen ekimenak aurrera eramateko eta koordinatzeko, batzordeak osatu dira. Batzorde horietan gurasoak dabilta jarduera hauek antolatu eta hobetu nahian. Batzordeak proposamenak egin eta lantzeko prest dauden guraso guztientzat daude irekita. Gaur egun, ondorengo guraso-batzordeak daude martxan: Euskara Batzordea, Jai Batzordea, Kirol Batzordea, Komunikazio Batzordea, Haurren Danborrada Batzordea, Helduen Danborrada Batzordea, Zurrimendi, Mugikortasun Batzordea eta Jangela Batzordea. Batzorde hauetako batean parte hartu nahi izanez gero, ondorengo helbidean harremanetan jarri. Ikastola GUZTIOK, GUZTIONA, GUZTIONTZAT baita.

artezkaritza@zurriolaikastola.eus

Bestalde, zuen seme-alaben heziketa integralean Ikastola eta familien arteko elkarlana ezinbestekoa dela ulertzen dugun heinean, ildo berean joan ahal izateko guraso-eskola saioak eskaintzen ditugu urtero. Unean uneko gaiak eta datak jakin bezain laster, haien berri emango dizuegu.

BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA:

IKASLE, IRAKASLE ETA GURASOAK ELKARTZEN DITUEN BATZORDEA

Ikasleek Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzea da batzorde honen helburua. Horren bidez, ikasleak Ikastolako partaide arduradun izan daitezzen bultzatu nahi da, Ikastolaren helburu nagusiak hedatu eta garatzeko ekimenak proposatuz, bultzatuz eta antolatuz.

Batzorde honetan DBHko araudia, eskola-antolakuntzako gaiak, irteerak, hutsegiteak eta, oro har, etapa honetako ikasleei dagozkien gaiak aztertu, erabaki edota dagokionari aurkeztu eta proposatzen dira.

Batzorde honen **partaideak** honela banatzen dira:

- Ikasleen ordezkariak 18 (gela bakoitzetik ordezkari bana).
- Gurasoen ordezkariak 6 (maila bakoitzetik guraso ordezkari bat).
- Irakasleen 3 ordezkari: Maddalen Acero, Aitor Artola eta Amaia Donés.

Ikasleen ordezkari aukeraketa

DBHko ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

12. GELAKO GURASO ORDEZKARIAK

Gurasoen partaidetzarekin jarraituz, gela bakoitzean guraso ordezkari bana eta ordezeko bat aukeratuko da. Ordezkari horiek bitartekari lanak egingo dituzte Ikastola eta gurasoen artean ikasturteko harremanak ahalik eta egokienak izan daitezen. Hori dela eta, Ikastolarekin eta Ikastolarentzat lan egiteko prest dauden guraso dinamikoak eta boluntarioak behar dira. Guraso hauek beste gurasoak dinamizatu, koordinatu, proposamenak jaso, bideratu eta tutore, kudeaketa talde, zuzendaritza pedagogiko eta Artezkaritza Kontseiluko kide eta Batzordeen arteko harremana sustatu eta zainduko dute. Guraso boluntariorik ez balego, ikasturte hasierako guraso bileran zozketaz aukeratuko dira guraso ordezkariak eta hauen ordezekoak. Zozketatik salbuetsiko dira lehendik ordezkari izandakoak.

2020-2021 ikasturtean, guraso ordezkarien papera definitu eta indartu nahian, hauen funtzioak, lan-dinamika eta antolaketa moduak berraztertu eta berregokitu ziren. Adostutako informazioarekin txosten bat osatu zen, ordezkari berriekin partekatuko dena, lehen bilerara deituak izan aurretik.

Bigarren Hezkuntzako Batzordean parte hartuko duten gurasoak

Gorago azaldu dugun moduan, BHko ikasle, guraso eta irakasleen Batzordean 6 gurasok hartuko dute parte, maila bakoitzeko banak.

Gurasoen ordezkariak ikasturte hasierako guraso bileran aukeratuko dira mailako hiru geletako gurasoen artean. Hautagaiek bi baldintza hauek bete behar dituzte:

- Euskarazko komunikazioan moldatzea
- Bileretara joan ahal izatea

Batzordeko bilerak hiruhilekoan behin izan ohi dira.

13. EUSKARAZ BIZI PROIEKTUA

Zurriola Ikastolako sorrera-helburua euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Areago, Zurriolako ikaslearen irteera-profileko lehen ezaugarria

euskaldun euskaltzalea izatea da. Hortaz, horretan saiatzen gara bai gelan baita gelaz kanpo ere.

Proiektu honen helburu nagusia ikastolako partaide guztiengan, ikasle, langile eta gurasoengan euskararen erabilera sustatu eta eragitea da. Helburua partaide guztien artean euskara normaltasunez erabiltzea da. Horretarako plangintza zehatzak bultzatzen ditu proiektu honek.

Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu proiektu honen alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu. Horren harira, Ikastolako Gurasoen Euskara Batzordea lanean ari da, eta aurten ere indar berezia jarriko da geletako ordezkari eta gainerako gurasoen parte-hartzean. Txosten honen amaieran duzue batzordeak sorturiko dekalogoa.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza ikastolako eremu guztietan, mesedez.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positibo batean eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira. Zentzu horretan, Euskararen erabileraren inguruko ardurarekin jarraiki, aurten ere **Gurasoentzat euskara ikastaroa** eskainiko da. Zuetariko bakoitzak euskaraz hitz egiteko egiten duen saiakerak zuen seme-alabentzat duen garrantziaz jabetuta, euskara maila hobetu edo ezagutza gutxienekoa jaso nahi duen gurasoarentzat ikastaroak eskainiko ditugu, ahal dela, ikastolan bertan.

Ikasturtearen arabera, Euskaraz Bizi proiektuaz gain, garrantzia berezia hartuko duten ekimenak bizitzen ditugu Euskal Herrian, hala nola, **Euskaraldia** eta **Korrika**. Ikastolak dagokion bakoitzean ekimen horietan parte hartuko du modu ofizialean, eta gure ikasleekin ere landu eta ospatuko ditugu. Horretaz gain, guraso guztiei luzatu nahi dizuegu parte hartzeko gonbitea, baita zuen seme-alabekin bizitzekoa ere.

14. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika ematerako orduan. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen idatziz adieraziezaguzue gure datuak eguneratu ditzagun eta ikasleari behar bezalako arreta eskaindiezaiozun. Osasun-fitxarik bete ez baduzue, Osakidetzako medikuek eta Hezkuntza Saileko ordezkariak prestatutako fitxa helaraziko dizuegu. Bertan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, ekar ezazue arren medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero Ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue Ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Fitxa beteta eta sinatuta helaraziezaiozue tutoreari, arren.

15. ERANSKINAK

A) EUSKARAZ BIZIKO DEKALOGOIA

1. IZAN EREDU

Umeez ez dituzte aginduak maite, ereduak kopiatzen dituzte. Beraz, gurasook izan behar dugu eredu.

2. IKASTOLA EUSKARA ERABILTZEKO GUNEA

Ikastola gune egokia da euskara erabiltzeko, baldintza egokiak ditu: ezagutza altua eta jarrera baikorra du jendeak. Askorentzat gune egoki bakarrenetakoa da euskaraz aritzeko.

3. ERABILI EDO SAIATU

Nork bere gaitasunaren arabera erabil dezake euskara. Ulertzen duenak bestei euskaraz egitea oztopatu gabe, zerbait dakienak euskaraz erantzun errazak emanez...

4. LEHEN HITZA EUSKARAZ

Egunon! Agur! Zer moduz! batekin hasteak euskaldun bezala identifikatzen zaitu eta gure lehen irudia da garrantzitsuena.

5. GUZION ESKU

Hizkuntzaren erabilera ekintza kolektiboa da beti. Adostasunera irits gaitezke gure solaskideekin.

6. JOERA ALDATU

Hauts ditzagun egoera hauek: 4 euskaldun+ erdaldun bat= gaztelaniaz. Edo are larriagoa dena 4 euskaldun= gaztelaniaz.


7. GOGOZ EKIN BIDEARI

Motibazioak, ezagutzak eta erabilerak elkar elikatzen dute. Euskara erabiltzen den lekuan ezagutza handitzen da eta ez dakitenek ikasteko motibazioa handitzen da. Baikortasuna, berriz, motorra da.

8. URRATSEZ URRATS

Bakoitzak bere egoera eta beharren arabera ikas dezake euskara. Ez dakiena ikasten has daiteke, gutxi dakienak erabilerara eta ezagutza hobetu ditzake ikastolan eta dakienak besteei lagundu diezaieke erabileran.

B) SMARTPHON-EN ERABILERARI BURUZKO DEKALOGOIA



teknoiz
Zurriola Ikastola Gurea Ikaslea

SMARTPHONA ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

- ZENBAT ETA BERANDUAGO EMAN HOBE** HAURREN BURMUINA EZ DAGO BIOLOGIKOKI PRESTATUTA.
- SMARTPHONA EZ DA JOSTAILU BAT** EZ EMAN OPARI GISA.
- SMARTPHONAK MENPEKOTASUNA SORTZEN DU** UTZ DIEZAIEGUN GURE SEME-ALABEI BIZITZA GOZATZEN ETA ASKE IZATEN.
- AURREZ AURREKO GIZA-HARREMANAK GUTXITZEN DITU** PANTAILAK EZ DAITEZELA HORIEN ETA BESTELAKO BIZIPENEN ORDEZKO IZAN.
- INTERNETERAKO SARBIDEAK HAINBAT ARRISKU DITU** ZIBER-JAZARPENA, SEXU-JAZARPEN BIRTUALA, BIOLENTZIA ETA SEXU EDUKI DESEGOKIAK...
- ONDO INFORMATUTA EGOTEA DA, ERABILERA EGOKIA SUSTATZEKO GAKOA** OSO TRESNA INDARTSUA DA. HAURREK EMANGO DIOTEN ERABILERA GURE ESKUETATIK KANPO GERATZEKO ARRISKUA HANDIA DA. APLIKAZIO ETA JOLASAK ERABILITZEKO GUTXIENEO ADINA EZAGUTZEA GURE ARDURA DA.
- GOGORATU: HELDUAK EREDU GARA** ETXEAN MUGIKORRIK GABEKO UNE ETA EREMUAK BERMATU. MUGIKORRAREN ERABILERAZ HAUSNARTU. EZ EDUKI UNEORO MUGIKORRA ESKUETAN.
- SMARTPHONA EMATEKO ERABAKIA SOZIALA DA** GURASOEN ARTEKO HITZARMENEK "DENEK DUTE" ARGUDIOA AHULTZEN DUTE. ERABAKIA GUREA DA.

Ohar honen gaztelaniazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión en castellano de este documento está disponible [aquí](#).